

Donostian, 2016ko azaroaren 18an

## ZERGA PARADISUETAN DAUDEN ENPRESEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia Taldeko bozeramaile Amaia Martin Garin andreak, Udal Arautegi Organikoaren indarreko 98. artikuluekin bat etorriz, eta hilabete honetako batzorde egokian egindako interpelazioaren ondorioz, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, udalbatzak azter dezan.

### JUSTIFIKAZIOA

Zerga paradisuak, munduko salerosketen erdiak hartzen dituzten sistema opakuak baitira, desorekak eragiten dituzte mundu osoan eta toki esparruan. Zergak %0tik hurbilekoak izaten dira paradisuotan, eta enpresa handiek zerga paradisuaren bidez egiten duten saiheste fiskala diskriminazio ekonomikoa da paradisuak ezin erabil ditzaketen eta/edo erabili nahi ez dituzten enpresa txiki eta ertainentzat. Zerga paradisuaren bidezko saiheste fiskal horrek, halaber, diru-bilketa publikoa gutxitzen du, eta, horregatik, zailagoa da zerbitzu sozialen gastua finantzatzea. Zerga paradisuaren opakotasunaren ondorioz, errazagoak dira honako hauek: kapitalak zurtzea; ustelkeria; krimen antolatua, mafiak eta talde terroristak finantzatzea; armen, emakumezkoen eta esklaboen salerosketa estaltzea; eta giza eskubideen nahiz guztien ongiaren aurkako beste jarduera batzuk egitea.

Zerga paradisuak izatearen ondorio larriak eraginda, nazioarteko eragileak (G7, G20, [Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundea](#), EB) neurriak hartzen ari dira, enpresa handiek zerga paradisuez zergak saihesteko edo dirua atzerrira eramateko egiten duten erabileraren kontrola handitzeko. Alde horretatik, [Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak](#) erabaki du enpresa multinazionalak aurkeztu behar izatea diharduten herrialdeetako bakoitzean dauzkaten filial guztien zerrenda, bai eta herrialde horietako bakoitzean daukaten jardura ekonomikoari eta zergen ordainketei buruzko datuak aurkeztea ere (Country by country reporting). Enpresek 2016tik aurrera aurkeztu behar duten informazioari buruzko eskaera hori bere egin du Estatuko Gobernuak, baina neurri mota horren norainokoa mugatu du, urtean 750 milioi euro baino gehiago fakturatzen dituzten enpresei baino ez zaielako eskatzen informazio hori ematea, eta informazio hori jendaurrean zabaltzea eragozten delako.

Udalek zerga paradisuaren eragin globala murriz dezakete, eta enpresen zerga portaera jardunbide arduratsuetarantz bideratzen ahalegin daitezke, tokian tokiko lehiaketa publikoak gehiago kontrolatuz, lehiaketetan lehia askea izan dadin, dumping fiskalik gabekoa, eta bitarte publikoei eusten zaiela zainduz.

Hilabete honetako Batzordean aurkeztutako interpelazioan, Gobernuak adierazi zuen ezinezkoa dela egoitza zerga paradisetan duten enpresekiko kontratazio publikoa mugatzeko ekimenak gauzatzea. Gure ustez, funtsezkoa da borondate politikoa, behar diren lege-xedapenak bideratu ahal izateko.

Horregatik, honako hau aurkezten dugu:

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatza Osoak Udal Gobernuari eskatzen dio behar diren urratsak egiteko, bermatuta gera dadin lehiaketa publikoetan mesede egiten zaiela zerga jokabide arduratsuak dituzten enpresei, zerga paradisuak zergak saihesteko edo dirua haietara eramanda ez ordaintzeko erabiltzen dituzten enpresen kaltetan.
2. Donostiako Udalbatza Osoak Udal Gobernuari eskatzen dio aztertzeko zer mekanismo izan behar diren enpresa pribatuen kontratazioa zailtzeko, kontratazioaren helburua zerbitzu publikoak ematea bada, eta enpresa horiek egoitza zerga paradisetan badute, edo egoitza zerga paradisetan duen sozietate nagusi industrial baten parte diren sozietateak badira, bai eta gero mekanismo horiek aktibatzeko ere.
3. Donostiako Udalbatza Osoak Udal Gobernuari eskatzen dio gardentasunerako neurri hauen aldeko konpromisoa hartzeko:
  1. Mozio honetan jasotako konpromisoaren berri ematea udalerriko herritarrei, mozioaren aitzindariari (Oxfam Intermón), autonomia erkidegoko legebiltzarkideei, Estatuko Parlamentuko taldeei eta Ogasun Ministerioari.
  2. Beste udal batzuekin eta herritarrekin partekatzea daukaten zerga erantzukizunaren arabera puntu positiboak jaso dituzten edo jaso gabe gelditu diren enpresei buruzko erabakiekin zerkusua duen informazioa.
4. Donostiako Udalbatza Osoak Udal Gobernuari eskatzen dio konpromiso hauen emaitza izateko behar diren lege xedapenak bideratzea, konpromisoak mozio hau onartu eta gehienez ere sei hileko epean taxu daitezen.

Sin.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.